

Antxiñako fotografixia

Oñatiarrak Gurs-eko kontzentraziño-esparruan

O rain dala 75 urte gure artian lehertu zan gerra zibil latza-ren ondorixoz, hamaika ibi-llera negargarri egin bihar izan euen oñatiar askok batian eta bestian. Alde bixetakuak, egixa; baiña ezin ukatu galtzaillien sufrimentuak gogorraguak eta luziaguak izan zirala. Gaurko argazki honetara **Gurs-eko kontzentraziño-esparruan** egondako oñatiarretako bi dakartzuegu. Baiña nun dago Gurs? Ba, ez hain urrin, Zuberuako mugan, Ospitaletik lau kilometrorra, Barkoxe eta Mauletik hurrian, Navarrenx ondo-onduan, eta Sauveterre-tik Olorue-rako bidian. Gaur egunian Biarno barruan sartzen



dan arren, XVIII. gizaldixan, eta akaso geruago be bai, hor euskeraz berba egingo zan seguruenik. Ziur nago txantxikuar pillia pasau dala Gurs-etik, Pirineotako tontorren batera igotera edota Arette aldeko San Martin-Harrira eskiaittera fan danian.

Hortxe, Gurs-en, moldau eben gobernu frantsesak kontzentraziño-esparrua 1939ko udabarrixaren hasiera inguruan, Espaiñako gerra zibilletik Frantziara igesik fandako **Francoren kontrako euskaldunak hobeto kontrolau ahal izateko**. Horreittako gehixenak, gerra akaberan Kataluña jausi zanian, mugia zelabait pasau ondoren, Mediterraneoko **Argelès-sur-Mer, Saint Cyprien** edo **Barcarès**-eko plaietan egozen pillatuta, beste errepublikano askorekin batera, negu gorrixan eta egoera bilddurgarrixan. Orduan, Eusko Jaurlaritzak kolore ezbaridinetako euskaldun demokratik Gurs-eko esparrura eruatia lortu ebenian, zela edo halako soluziñua izan zan hainbatentzat, hillabete batzuetarako gutxienez.

Bost milla bat euskaldunek ikusi bihar izan zittuain hillabete hareittan Gurs-eko zelaixak eta hango zurezko barrakoiak. Oñatiar banaka batzuk be baziran horrein artian; fotografixako bi horreik, adibidez: ezkerretik hasitta, **Xegundo Urteaga** eta **Roxendo Iturmendi** kaletar ezagunak. Argazkiko hirugarrena eztozu identifikau. Baiña etziran bakarrak, beste herrittar honeik be han egon ziran-eta: **Joxe Aberasturi, Pedro Aldanondo, Tomas Altuna, Anjel Balantzategi, Baxilio Basauri, Nati Begolain, Emeterio Elortza, Regino Galfarsoro; Joxe Migel Gomendio, Juan Idigoras, Narziso Iñurrategi, Felipe Jausoro, Lorentzo Letamendi** eta **Eleuterio Ugarte**. Horreik behintzat bai.

Zoritzarrez, etziran esparru haretan akabo galtzaillien nekiak eta penak. Handik laister hasi zan bigarren mundu-gerran alemanak Frantziatz jabetu ziranian, Gurs-eko euskaldunak sakabanatu egin ziran ezinbestian. Mugia igaro eta Hegoaldera etorri ziranak kalbarixo izugarrixa sufridu bihar izan euen. Xegundo eta Roxendo, esate baterako, zigor moduan langille-batailluetara bialdu zittuain. Xegundok **Archenara** (Murtzia), eta Roxendok **Rotara** (Cádiz) nahiz **Naparruara** fan bihar izan euen derrrigortutako lanetara. Roxendo larri ibili zan, malaria-gaitzak jota. Okerrena, baiña, Gurs-en bertan gertatu zan: euskaldunentzat egindako **kontzentraziño-esparrua, handik gutxira judixoz eta bestelako disidentez beteteko aprobetxau euen nazixak**. Makiñatxo bat hil zan Gurs-en, edota handik kanpora bialdu zittuain beste heriotz-esparru ba-tzuetan. **Gurs-eko zelai historikua zabalik dago. Bisittau leike.**

J. E.

Fotografixia Anton Urteagak itzittakua da. Argibidiak, barriz, Antonek berak eta Beatriz Gomendiok eskuratu doskue. Milla esker!